

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Exonomastika batzordea

2017an argitaratutako arauak

Urtarrilean 180. araua argitaratu zen: *Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak.*

Martxoan 181. araua argitaratu zen: *Erdi Aroko pertsona-izenak.*

Maiatzean 182. araua argitaratu zen: *Dinastien izenak.*

Ekainean argitaratu ziren 183. eta 184. arauak: *Adierazpen izendatzaileen deklinabidea eta Erdal hitzen deklinabidea, hurrenez hurren.*

185. araua (*Errenazimentuko pertsona-izenak*) 2017ko abenduan onartu zuen Osoko bilkurak, baina hurrengo urtean argitaratu zen.

180. araua

Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak.

Bi atalez osatuta dago araua. Lehenengoan, Erdi Aroaren hasieran Europan nagusitu ziren “barbaroen” izenak euskaraz idazteko irizpideak deskribatzen dira zehatz-mehatz, eta adierazten da beste hizkuntza batzuen aldean euskaraz zer joera diren nagusi, adibide ugari hornituta.

Bigarren atalean, izen-zerrendak ematen dira, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, ohi bezala. Guztira, 160 pertsona-izen dira, atalka sailkatuak: errege-erregina bisigodoak (34), frankoak (95), bandaloak (7), sueboak (11), ostrogodoak (6) eta beste buruzagi barbaro batzuk (7). Adibidez: *Leovigildo, Txilderiko, Klotilde, Rekarredo, Alariko, Witiza, Atila...*

181. araua

Erdi Aroko pertsona-izenak.

Irizpideak zehazteaz gainera, guztira 211 pertsona-izen ageri dira arauan, bi sailetan banatuak:

1- Europako lurralde kristauetako pertsona-izen nagusiak, hala nola *Gilen Oc-khamgoa, Boccaccio, Joan Beldurgabea, Marco Polo* edo *Urraka*.

2- Kristandadearen eremuaz kanpoko pertsona-izenak (musulmanak, juduak eta turko-mongolak), hala nola *Al-Khwarizmi, Almanzor/Al-Mansur, Avizena/Ibn Sina, Mahoma/Mahomet/Muhammad, Yehuda Halevi* edo *Gengis Khan*.

Pertsona-izen historikoez gainera, *Mila gau eta bat gehiago* obrako zenbait pertsonaiaren izenak ere sartu dira zerrendan, hala nola *Aladin* eta *Xeherezade*, bai eta literatura arturikoan ageri diren pertsonaia nagusiak ere, hala nola *Lantzot Aintzirakoa, Ginebra, Pertzeval/Presebal* edo *Mahai Biribileko zaldunak*.

Bestalde, pertsona-izena ez bada ere, *Ala/Allah* jainko-izena ere sartu da zerrendan, erabilera-maiztasun handiko izena baita.

182. araua

Dinastien izenak

Arauak bi atal ditu.

Lehenengo atalean, munduko dinastien izenak euskaraz izendatzeko irizpideak zehazten dira. Horretarako, kontuan hartzen da zer dagoen dinastiaren jatorrian: pertsona-izen bat, leku-izen bat edo izen arrunt bat. Horren arabera erabakitzen da, tradizioak edo azken urteetako erabilerak finkatutako izenik izan ezean, izen eratorria erabiltzea (adibidez, *Akemenes* pertsona-izenetik *akemenestarrak* izeneko dinastia sortu zen) edo, jatorri-izenetik abiatuta sortzen den dinastia-izena gure kultura-ingurunean erabiltzen den izenaren formatik urrun gelditzen bada, mailegatzea (adibidez, *Nasr* pertsona-izenetik *nasrtarrak* izeneko dinastia-izena atera beharrean, *nazariak* izena mailegatzea hobesten da).

Bigaren atalean, dinastia-zerrendak ematen dira, bost multzotan banatuta: Antzinateko dinastiak (*seleukotarrak, sasandarrak...*), Erromatar Inperioko dinastiak (*antoninotarrak, flaviotarrak...*), Bizantziar Inperioko dinastiak (*komnenotarrak, paleologotarrak...*), Europako dinastia nagusiak (*estuardotarrak, borboiak, kapetarrak...*) eta islamaren eremuko dinastia nagusiak (*abentzerrajeak, alauiak, banukasitarrak...*). Guztira, 107 dinastia-izen ematen dira.

183. araua

Adierazpen izendatzaileen deklinabidea

Leku-izenak edo pertsona-izenak ez diren izen(dapen) berezi asko daude, halakoez inguratuta gaude. Eta halakoak nola deklinatu argitzeko prestatu du araua Akademiak.

Arauan luze eta zabal aztertzen dira horrelako izen(dapen)ak, eta deklinatzeko irizpideak zehazten. Asmo didaktikoz egina dago; horregatik, adibide ugari ematen dira.

Deskribapen zabal eta xeheaz gainera, arauaren azken atalean laburbildurik ematen da aurreko ataletan zabalago landutako guztia.

184. araua

Erdal hitzen deklinabidea

Erdal hitzak noiznahi agertzen dira euskarazko testuetan, hitz arruntak (*yuppie, gryere, xah, cash flow...*) zein leku-izenak (*Cannes, Zürich...*), zein pertsona-izenak (*François, Shakespeare...*), zein bestelakoak (*Greenpeace, Rolls-Royce...*). Eta halakoak nola deklinatu argitzeko prestatu du araua Akademiak.

Izen horietako batzuk arazorik gabe deklinatzen dira, hala ahoz nola idatziz. Beste batzuetan, berriz, zalantzak sortzen dira, batez ere ahoskera eta idazkera bat ez datozenean.

Hori guztia aztertzen da arauan, eta irizpide zehatzak ematen dira jakiteko nola jokatu idaztean eta ahoz esatean.

Arauaren bigarren partean, h , y edo w letraz amaitutako erdal hitzak deklinatzeko irizpideak zehazten dira kasu bakoitzerako. Horrelako amaierak ez dira inoiz gertatzen euskal hitzetan eta, horregatik, irizpidea deskribatu eta zehaztu du Euskaltzaindiak, zalantzak argitzearren.